



*Prentsa oharra*

## ***Neska Nerabeen Jarrera Trastornoa: Mekanismoen ulermen eta Terapien adaptazioa***

**Emakumezko nerabeetan emandako Jarrera Trastornoei buruzko Nazioarteko Konferentzia: FemNAT-CD ikerketa europar multzientrikoaren aurkikuntzak**

**Ostirala, 2018ko urtarrilaren 26an, 9:00-16:00**

Goethe Unibertsitatea, Frankfurt am Main  
Casino- Westend Kanpua  
Nina Rubinsteinweg 1, 60323 Frankfurt am Main, Alemania

*Lau urtez ikerketa eta kolaborazioan sakon jardun ostean, Europar Batasunak finantzaturako FEMNAT-CD proiektuak bere emaitzak plazaratuko ditu. Ikerketa multzientriko honek, Jarrera Trastornodun neskatilen Jarrera trastornoaren nondik norakoak aztertu ditu haurtzarotik hasi eta heldutasunera heltzeraino, trastorno honen aurreko trataerak hobetzeko asmoz. Lau urte eta erdi hauetan, Europar Batasunak 6 milioi euroko diru laguntzarekin finantzatu FemNAT-CD proiektua.*

Europar Batasunean, mendebaldeko gizarteetan eman ohi den bezala, Jarrera Trastornodun nesken kopurua (agresio eta jarrera antisozial gogorrek dituztenak) igotzen ari da. Neskatilen ehuneko bi inguruk pairatuko du trastornoa. Gazte hauetan, nerabezaroko haurdunaldia, lan munduan barneratzeke zailtasuna, drogen kontsumoa, delinkuentzia eta osasun mental eta fisikoko arazo kronikoak bezelako sintomak azaldu ohi dira.

Trastorno honen muina hobe ezagutu eta terapia berrien garapenean aurreratzearren, FemNAT-CD proiektuak disziplina anitzeko ikerketa bakarra burutu du non genetikoak zein ingurugiroko arrisku faktoreak, garuneko egitura eta funtzioan emandako aldaketak, eta Jarrera Trastornodun neskek emozioen aurrean duten kontrol eta ezagutza gaitasuna bezalako azpiatalak aztertu dituen. Honetaz gain, Gazteen Ongizate Erakundeetan dauden Jarrera Trastornodun nesken emozio erregulazioa hobetzen duen eta ebidentzian oinarritua dagoen terapia baten efikazia ikertu da. Kontsultazioari esker gainera Jarrera Trastornodun neskatilen aurkezpen kliniko zehatz eta euren beharren ezagutza hobea lortu da. Aurkikuntza hauek paziente hauen trataera berrien garapenean funtsezkoak izango dira.

*Christine Freitagek, Frankfurteko Goethe Unibertsitateko Haur eta Nerabeen Psikiatria, Psikosomatika eta Psikoterapia saileko zuzendari eta ikerketako kuadretzaile denak zera zioen: "azken lau urte hauetan Jarrera Trastornoak dituzten emakumezko nerabeak ikertu ondoren*

hobe ulertzen dugu orain trastornoa. Azpimekanismo genetiko zein neuralen ikuspegi sakonagoa izateaz gain, Jarrera Trastornoan nerbio sistema autonomoak eta estresaren aurreko hormonak duten garrantziaz gehiago jakin dugu.”

2018ko urtarrilaren 26an, ostiralean, ikerketako hasierako aurkikuntzak plazaratuko dituzte kontsortzioko kideek. Proiektu eta emaitzen aurreikuspegi orokorra emateaz gain, paziente eta euren familiei laguntze aldera, Europa osoan gazteen osasun sistema eta ongizate mailan eman daitezkeen hobekuntzei buruzko diskusio animatu eta produktiboa burutzea espero du konferentziak. “Guztion artean gure aurkikuntzei buruz aritzeaz gain, egungo sistema hobetzeko baliabideetaz aritzeko aukera ona ere izango da konferentzia hau” dio Freitag irakasleak. “Europar mailan aritzeak sortu dituen zailtasun eta desfioei buruz ere arituko gara”.

Konferentziak bi atal izango ditu: goizean Kontsortzioko kideen eskutik FemNAT-CD proiektuari buruzko sarreratxo bat eta arratsaldean, gaian adituak direnentzat diskusio irekia. Jarrera Trastornoekin interesa duen edota eurekin diharduen oro gonbidatua egongo da: paziente eta euren familiak, psikiatrak, psikologoak, ongizate zentruetako langileak, ikerlariak, paziente eta familientzako babes erakundeak eta politikariak. Agenda eta konferentziaren berri zehatza izango dute.

FEMNAT-CD ikerketa Europar Batasuneko FP7-Salud-2013-Innovación Programak babestua egon da, 2013ko irailetik aurrea. Proiektuko kideak: Frankfurteko Goethe Unibertsitatea, Aachen Unibertsitate Ospitalea, Fundazioa VUmc Amsterdam, Southamptoneko Unibertsitatea, Heidelbergeko Unibertsitatea, Birminghameko Unibertsitatea, Regensburgeko Unibertsitatea, Basurto Unibertsitate Ospitalea-Osakidetza/BIOEF, Szeged Unibertsitatea, Atenaseko Kapodistria eta Nazionalea Unibertsitate, Varionostic GmbH, DAACRO GmbH & Co KG, GenXPro GmbH.

*Informazio gehiagorako:*

**[www.femnat-cd.eu](http://www.femnat-cd.eu)**

**[www.twitter.com/femNATCD](https://www.twitter.com/femNATCD)**

**Zuzendaritza:**

Christine M. Freitag irakaslea

Proiektu zuzendaria

Goethe Unibertsitatea, Frankfurt, Alemania

Telf. (0 69) 63 01 – 54 08

Mail.a [C.Freitag@em.uni-frankfurt.de](mailto:C.Freitag@em.uni-frankfurt.de)

**Konferentziako antolatzailea:**

Monika Maaß dokt.

Antolamendu zuzendaria

ARTTIC S.A.S.

Telf. +49 89 248 83 03-38

Mail.a [maass@arttic.eu](mailto:maass@arttic.eu) (Dr. Monika Maass)

Internet [www.arttic.eu](http://www.arttic.eu)